

"TELEFÓNICA CONSUMER FINANCE, ESTABLECIMIENTO FINANCIERO DE CRÉDITO, S.A."
SOZIEATEAREN ESTATUTU SOZIALAK

I. TITULUA.- IZENA, XEDEA, IRAUPENA ETA EGOITZA

1. artikulua.- Izena eta lege-araubidea

Sozietatearen izena **"TELEFÓNICA CONSUMER FINANCE, ESTABLECIMIENTO FINANCIERO DE CRÉDITO, S.A."** da ("**Sozietatea**"), eta Estatutu hauek, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginak, eta mota horretako sozietateei aplika dakizkiekeen ordenamendu juridiko-pribatuko gainerako arauak arautzen dute.

2. artikulua.- Xedea

Sozietatearen xedea da Espainian honako ekintza hauek gauzatzea:

1. Maileguak eta kredituak eman, kontsumorako kredituak eta merkataritza-transakzioen finantzazioa barne.
2. Finantza-errentamendukoak, jarduera osagarri hauek barne direla:
 - (a) Lagatako ondasunak mantentzeko eta kontserbatzeko jarduerak.
 - (b) Egungo edo etorkizuneko finantza-errentamenduko eragiketa bati lotutako finantzaketa ematea.
 - (c) Finantza-errentamenduko eragiketen bitartekaritza eta kudeaketa.
 - (d) Errentamendu ez-finantzarioko jarduerak, erosteko aukerarekin osa daitekeena.
 - (e) Aholkularitza eta merkataritza-txostenak.

Sozietateak bere jarduera nagusiak hobeto gauatzeko beharrezko den beste edozein jarduera osagarri egin ahal izango du.

3. artikulua.- Iraupena eta jardueren hasiera

Sozietateak iraupen mugagabea izango du. Sozietateak eratze-ekritura egilesten den egunean hasiko ditu bere jarduerak.

4. artikulua.- Egoitza soziala eta egoitza elektronikoa

Enpresaren egoitza Manoteras etorbidean dago, 20. Paris eraikina. 28050.

Sozietatearen webgune korporatiboa www.telefonicaconsumerfinance.net da.

Sozietatearen Administrazio Organoak eskumena izango du (i) Espainiako edozein lekutan sukurtsalak, agentziak edo ordezkariak sortu, ezabatu edo lekuz aldatzeko, (ii) egoitza soziala udalerrri berean aldatzeko, eta (iii) web-orri korporatiboa ezabatu eta, hala badagokio, lekuz aldatzeko.

II. TITULUA.- KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK

5. artikulua.- Kapital soziala eta akzioak

Sozietatearen kapitala bost milioi (5.000.000) eurokoa da, osorik harpideturik eta ordaindurik dago, eta bost mila (5.000) akzio arrunt izendunek osatzen dute, bakoitza mila (1.000) euroko balio izendunekoa, 1etik 5.000ra (biak barne) korrelatiboki zenbakituak, guztiak mota eta serie berekoak izanik. Akzioak tituluen bidez eskuordetuko dira; titulu horiek bateratuak edo askotarikoak izan daitezke, eta Kapital Sozietateei buruzko Legean gutxieneko gisa adierazitako aipamen guztiak jasoko dituzte; bereziki, Estatutu hauetan eskualdagarritasunari buruz ezarritako mugak.

Sozietateak Akzio Izendunen Erregistro Liburua eramango du, eta bertan inskribatuko dira hasierako akziodunen identitatea eta akzioen ondoz ondoko eskualdatzeak, ondoz ondoko titularren izena edo izen soziala, nazionalitatea eta helbidea adierazita. Sozietateak Akzio Izendunen Erregistro Liburu horretan inskribatuta dagoena baino ez du hartuko akzioduntzat.

6. artikulua.- Sozietatearen akzioak eskualdatzeko araubidea

6.1 Orokorra

6.1.1 6. artikulua honetako xedapenak Sozietatearen akzioen eskualdaketa edo Sozietatearen akzioak lehentasunez harpidetzeko eskubide guztiei aplikatuko zaizkie, eta, oro har, baita titularrari edo edukitzaileari Batzar Orokorrean bozkatzeko eskubidea ematen dioten edo eman diezaioketen beste eskubide batzuen eskualdaketa ere. Kasu guztietan, oro har, "akzioen eskualdaketa"tzat hartuko dira 6. artikulua honen testuinguruan.

6.1.2 6. artikuluan ezarritakoarekin bat ez datozen akzioen eskualdatzeak ez dira baliozkoak izango, eta ez dute ondorioz sortuko Sozietatean. Sozietateak ez dio akziodun izaera aitortuko artikulua hau bete gabe akzioak eskuratzen dituenari. Era berean, automatikoki etengo dira artikulua honetan xedatutakoa urratuz eskualdatutako akzioei dagozkien eskubide politikoak, eragindako kalte-galerengatik akziodun ez-betetzaileari eska dakioken erantzukizunaren kalterik gabe.

6.2 Talde barruko eskualdaketa

Libre egongo da akziodun batek bere Taldearen sozietate baten alde bere borondatez egindako akzioen eskualdaketa. Bere akzioak bere Taldeko sozietate baten alde eskualdatu nahi dituen akziodunak, aldeztu aurretik idatziz jakinarazi beharko die gainerako akziodunei eskualdatzeko duen asmoa, eskuratzaileraren potentzialaren nortasuna berariaz adierazita.

6.3 Laguntzeko eskubidea eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea

Aurreko 6.2 artikuluan aurreikusitako talde barruko eskualdatzeen kasuetan izan ezik, akziodunek elkarri aitortzen diote elkarri laguntzeko eskubidea eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea, horietako edozeinek hirugarren bati eskualdatuko dizkion akzio guztiei dagokienez.

Akzioak eskualdatu nahi dituen akziodunak akonpainamendu-eskubidea eta gainerako akziodunek lehentasunez eskuratzeko duten eskubidearen berri eman beharko dio eskuratzailer potentzialari, eta ez du onartuko bere akzioengatik inolako eskaintzarik eskuratzailer ez bada eskubide horien jakinaren gainean.

Hirugarren batekin bere akzioak eskualdatzeko akordioa ("**Akordioa**") egin duen akziodunak gainerako akziodunei idatziz jakinarazi beharko dizkie ("**Eskualdaketaren Jakinarazpena**") eskualdatzearen baldintzak, Akordioaren testua erantsita.

Akordioak irmoa eta ezeztazina izan beharko du, gainerako akziodunek akonpainamendu-eskubidea edo lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatzeko aukerari kalterik egin gabe, eta konpromiso ezeztazina jaso beharko du akzio horiek eskuratu ditzakeenaren aldetik, akziodunak kide diren Taldeetako edozein sozietatek Sozietateari emandako finantzaketa osorik amortizatzeko. Artikulu honen ondorioetarako, ez dira Akordiotzat hartuko, besteak beste, lotesleak ez diren azalpenezko eskaintzak edo asmoei buruzko akordioak edo gutunak.

Eskualdatzearen Jakinarazpenak alderdi hauek azaldu beharko ditu: eragindako akzioak, hirugarrena zein den (zein Taldeetako den ere adierazita), eskualdaketaren zehaztapen eta baldintzak (prezioa, epea eta ordaintzeko modua barne) eta Sozietateari akziodunak kide diren Taldeetako edozein sozietatek emandako finantzaketa amortizatzeko erabiliko diren funtsen jatorria. Eskualdaketa doakoa bada, datu berberak emango dira, prezioari, epeari eta ordaintzeko moduari buruzkoak salbu.

Eskualdaketaren Jakinarazpena jaso eta hogeita hamar (30) egun naturaleko epean, eskualdatzaile ez diren akziodunek idatziz jakinarazi beharko diote akziodun eskualdatzaileari akonpainamendu-eskubidea ("**Akonpainamenduaren Jakinarazpena**") edo lehentasunez eskuratzeko eskubidea ("**Lehentasunez Eskuratzearen Jakinarazpena**") baliatu nahi duten.

6.3.1 Eskualdatzaileak ez diren akziodun guztiek edo batzuek akonpainamendu-eskubidea baliatzea erabakitzen badute, eta inork ez badu lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabiltzea erabakitzen, akziodun eskualdatzaileak hamabost (15) egun naturaleko epea izango du, Akonpainamenduaren Jakinarazpenak jasotzen dituenetik zenbatzen hasita, hirugarrenarengandik juridikoki loteslea den eskaintza bat lortzeko, eskualdatzaileak ez diren akziodunek eskainitako akzioak eskuratzeko, akziodun eskualdatzaileak eta hirugarrenak adostutako moduan eta baldintzetan. Hamabost (15) egun naturaleko epe horren barruan akziodun eskualdatzaileak ez badu hirugarrenarengandik idatzizko eskaintzarik jasotzen, eskualdaketa ezingo da egin. Akziodun eskualdatzaileak epe horren barruan lortzen badu hirugarrenaren idatzizko eskaintza, akziodunek eta hirugarrenak akzioen eskualdaketa egiteko betebeharra izango dute, hamabost (15) egun naturaleko epean, akziodun eskualdatzaileak hirugarrenaren idatzizko eskaintza lortu duenetik zenbatzen hasita. Akziodunak kide diren Taldeetako edozein sozietatek Sozietateari emandako finantzaketa egintza bakarrean amortizatu beharko da.

6.3.2 Eskualdatzaileak ez diren akziodun guztiek edo batzuek lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabiltzea erabakitzen badute, eta inork ez badu akonpainamendu-eskubidea erabiltzea erabakitzen, eskualdatzen dituen akziodunaren akzioak Sozietatearen kapital sozialean dituzten partaidetzak hainbanatuta eskuratzeko lehentasun-eskubidea baliatu duten akziodun ez-eskualdatzaileen artean banatuko dira. Kasu horretan, eskualdatzaileak ez diren akziodunek eta akziodun eskualdatzaileak hamabost (15) egun naturaleko epean eskualdatu beharko dituzte azken horren akzioak, Lehentasunez Eskuratzearen Jakinarazpenak jasotzen direnetik zenbatzen hasita, Eskualdatzearen

Jakinarazpenean aurreikusitako moduan eta baldintzetan, eta eskualdatzaileak ez diren akziodunek, egintza-unitatean, oso-osorik amortizatu beharko dute akziodunak kide diren Taldeetako edozein sozietatek Sozietateari emandako finantzaketa, Sozietatearen kapital sozialean dituzten partaidetzen arabera hainbanatuta, baldin eta akziodun batek baino gehiagok baliatzen badute lehentasunez eskuratzeko eskubidea. Akziodunek bere kabuz edo hirugarren baten bidez gauzatu ahalko dute lehentasunez eskuratzeko beren eskubidea.

- 6.3.3 Eskualdatzaileak ez diren akziodun batzuek lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabiltzea erabakitzen badute, eta beste batzuek, berriz, akonpainamendu-eskubidea erabiltzea, lehentasunez eskuratzeko eskubidea lehenetsiko da akonpainamendu-eskubidea erabiltzearen gainetik. Kasu horretan, akziodun eskualdatzaileak Lehentasunez Eskuratzearen Jakinarazpenak eta Akonpainamenduaren Jakinarazpenak jaso ondoren, bost (5) egun naturaleko epean horren berri emango die akonpainamendu-eskubidea baliatu duten akziodun eskualdatzaileei. Jakinarazpen hori jaso ondoren, akziodun horiek beste hamar (10) egun naturaleko epea izango dute lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabili ala ez erabakitzeko. Horretarako, Lehentasunez Eskuratzearen Jakinarazpena bidali beharko diote akziodun eskualdatzaileari. Jakinarazpen hori ez badute bidaltzen, Sozietateko akziodun izaten jarraituko dute, eta akziodun eskualdatzaileari jakinarazitako akonpainamendu-eskubidearen gauzatzea bertan behera geratuko da.

Aurreko paragrafoan adierazitako hamar (10) egun naturaleko epea igaro ondoren, lehentasunezko eskuratzeko eskubideak baliatu dituzten akziodun ez-eskualdatzaileek eta akziodun eskualdatzaileak azken horren akzioen eskualdaketa egin beharko dute hamabost (15) egun naturaleko epean,

Eskualdaketa Jakinarazpenaren zehaztapen eta baldintzetan. eskualdatzaile ez diren akziodunek oso-osorik amortizatu beharko dutelarik, ekintza bateratuan, akziodunak kide diren Taldeetako edozein sozietatek Sozietateari emandako finantzaketa. Lehentasunezko eskurapen-eskubidea baliatu duten akziodun ez-eskualdatzaileak bat baino gehiago badira, akziodun eskualdatzailearen akzioen banaketa eta akziodunak kide diren Taldeetako edozein sozietatek Sozietateari emandako finantzaketa osorik amortizatzeko betebeharra Sozietatearen kapital sozialean dituzten partaidetzen hainbanaketaren arabera egingo dira.

(a) Doako eskualdaketa edo (b) salerosketa ez den kostu bidezko titulu bidezko eskualdaketa izanez gero, eskuratzeko prezioa izango da eskualdatzaileak ez diren akziodunek Eskualdaketa Jakinarazpena jaso duten datan duen arrazoizko balioa. Arrazoizko balioa edozein akziodunek eskatuta zehaztuko du aurreko ekitaldi sozialean Espainian fakturazio-bolumen handiena izan duen lau auditoretza-enpresetako batek (Sozietatearen auditorea ez den beste batek), gehienez ere hogeita bost (25) egun naturaleko epean, bere eginkizunerako beharrezkoa den informazio guztia eskura jarri zaionetik zenbatzen hasita. Auditorearen ordainsariak akziodun eskualdatzaileak eta esku-hartzea erdibanatan eskatu duten akziodun ez-eskualdatzaileek ordainduko dituzte. Kasu horretan, eskualdatzaile ez diren akziodunek akziodun eskualdatzaileari Akonpainamenduaren Jakinarazpena edo Lehentasunez Eskuratzearen Jakinarazpena jakinarazteko hogeita hamar (30) egun naturaleko epe hori auditoreak akziodunei arrazoizko balioaren zehaztapena jakinarazten dietetik hasiko da kontatzen.

Eskualdatzaile ez diren akziodunek ez badute hogeita hamar (30) egun naturaleko epean erabiltzen ez akonpainamendu-eskubidea, ez lehentasunez eskuratzeko eskubidea,

Eskualdaketaren Jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatzen hasita, akziodun eskualdatzaileak askatasuna izango du bere akzioak hirugarrenari eskualdatzeko. Eskualdaketa aurreko hogeita hamar (30) egun naturaleko epea amaitu eta hurrengo hamabost (15) egun naturalen barruan egin beharko da, eta, aldi berean eta ekintza bateratuan, akziodunak kide diren Taldeetako edozein sozietatek Sozietateari emandako finantzaketa amortizatu beharko da, Eskualdaketaren Jakinarazpenean deskribatutako zehaztapen eta baldintzetan; akziodun eskualdatzaileak hori modu frogagarrian egiaztatu beharko die akziodun ez-eskualdatzaileei, eskualdaketa egin eta hurrengo hamar (10) egun naturalen barruan.

6.4 Atzera eskuratzeko eskubidea

Akziodunek atzera-eskuratzeko eskubide erreala izango dute akziodun batek 6. artikuluko honetako xedapenak bete gabe egindako akzioen edozein eskualdaketaren kasuan, beste pertsona bati egindako eskualdaketa edo Eskualdaketaren Jakinarazpenean adierazitakoekin bat ez datozen zehaztapen eta baldintzetan egindakoak barne.

Atzera eskuratzeko eskubidea gehienez ere hirurogei (60) egun naturaleko epean egikaritu ahal izango da, gainerako akziodunetako edozeinek akziodun eskualdatzaileak akzioak eskualdatu dituela jakiten duenetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, eskuratzeprezioa honako bi hauetako txikiena izango da: (a) eskualdatutako akzioen ondare-balio garbia, lehen eskualdaketa egiaztatu den unean Sozietateak onartuta duen azken balantzearen arabera; edo, (b) hirugarrenak ordaindutako prezioa. Atzera eskuratzeko eskubidea akziodun batek baino gehiagok erabiltzen badu, akzioak Sozietatearen kapitalean dituzten partaidetzen hainbanaketaren arabera banatuko dira.

6. artikuluko honen ondorioetarako, Taldea izango da Sozietatearen akziodun bakoitza kide duen enpresa-taldea, Merkataritza Kodearen 42. artikuluko termino horri ematen dion zentzuan.

7. artikulua.- Akzioek ematen dituzten eskubideak

Akzioek titularrei eskubide guztiak ematen dizkiete, eta Estatutu hauetan eta indarreko legerian ezarritako betebeharrak guztiak ezartzen dizkiete. Akzio bakoitzak titularrari ematen dio, gutxienez, Sozietatearen irabazien banaketan eta likidazioaren ondoriozko ondarean parte hartzeko eskubidea; baita akzio berrien jaulkipenean edo akzio bihur daitezkeen obligazioen jaulkipenean lehentasunez harpidetzeko eskubidea ere, lege berean aurreikusitako modu, kasu eta baldintzetan; eta, halaber, Batzar Nagusietara joateko eta bertan botoa emateko, Sozietatearen erabakiak aurkaratzeko eta informazioa emateko eskubidea.

III. TITULUA.- SOZietATEAREN ORGANOAK

8. artikulua.- Sozietatearen organoak

Sozietatearen organoak dira Akziodunen Batzar Nagusia eta Administrazio Organoa. Estatutu hauetatik eta legetik eratortzen diren eskumenak dituzte.

I. ATALA.- BATZAR NAGUSIAK

9. artikulua.- Batzar Orokorra

Batzar Orokorra legean eta Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera arautzen da.

Batzar Orokorrean eratutako akziodunei dagokie erabakitzea, lege edo estatutuetan ezarritako gehiengoz, haren legezko eskumenekoak diren gaietan.

Akziodun guztiak, disidenteak eta bileran parte hartu ez dutenak barne, Batzar Orokorraren erabakien mende geratuko dira, legeak aitortzen dizkien eskubide eta akzioei kalterik egin gabe.

10. artikulua.- Batzar motak eta eskumenak

Batzar orokorrak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke, eta Administrazio Organoak deitu beharko ditu.

Ohiko Batzar Orokorra urtean behin egingo da nahitaez, ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan, Sozietatearen kudeaketa zentsuratzeko, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko, hala badagokio, eta emaitzaren aplikazioa ebazteko.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez den batzorde oro Ezohiko Batzar Orokortzat hartuko da.

11. artikulua.- Batzarrerako deialdia eta egiteko tokia

Batzar Orokorrerako deialdia egiteko, idazki bat bidaliko zaio Sozietatearen akziodun bakoitzari, horretarako izendatu duten helbidera, jaso dutela egiaztatzeko bitarteko baten bidez, dela notarioaren bidez, dela jaso izanaren agiriarekin, posta ziurtatuarekin edo burofaxarekin eskura emanda, akziodun bakoitzak horretarako emandako helbidera bidalita.

Deialdian honako hauek adieraziko dira: (i) Sozietatearen izena, bileraren eguna eta ordua, (ii) aztergaien zerrenda, aztertu beharreko gaiak jasoko dituen, eta (iii) deialdia egiten duen pertsonaren edo pertsonen kargua. Era berean, Batzar Orokorra bigarren deialdian noiz bilduko den ere jaso ahal izango da, hala badagokio.

Batzar Orokorra Sozietateak egoitza soziala duen udalerrian egingo da. Deialdian bilera non egingo den agertzen ez bada, ulertuko da deialdia batzarra Sozietatearen egoitzan egiteko egin dela.

12. artikulua.- Batzordearen eraketa

Batzar Orokorra balioz eratuta geratuko da lehenengo deialdian bere eskumeneko edozein gai aztertzeko, baldin eta akziodunak, bertaratuak edo behar bezala ordezkatuak, gutxienez, boto-eskubidearekin harpidetutako kapital sozialaren ehuneko hirurogeita hamabost (75) ordezkatzeko badute. Bigarren deialdian, berriz, Batzar Orokorra behar bezala eratuta geratuko da kasu bakoitzean legez eskatzen den kapital sozialaren ehunekoa ordezkatzeko duten akziodunak bertan daudenean edo behar bezala ordezkaturik daudenean.

13. artikulua.- Batzar unibertsala

Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, Batzar Orokorrerako deialdia egin dela ulertuko da eta behar bezala eratuta geratuko da kapital sozial guztia bertan edo behar bezala ordezkaturik dagoenean eta bertaraturik aho batez egitea onartzen dutenean. Batzar Orokor Unibertsala lurraldeko nazionalako edo atzerriko edozein lekutan bil daiteke.

14. artikulua.- Batzar orokorretarako joateko legitimazioa

Batzar Orokorretan hitza hartzeko eta botoa emateko eskubidea izango dute akzioen titularrek, baldin eta Akzio Izendunen Erregistro Liburuan inskribatuta badira Batzar Orokorra egin baino bost (5) egun lehenago.

15. artikulua.- Batzarrera joatea eta ordezkaritza

Akziodun guztiak joan ahal izango dira Batzar Orokorrera, edo beste pertsona baten bidez ordezkaturik egon daitezke, nahiz eta beste pertsona hori akzioduna ez izan. Ordezkaritza idatziz edo urrutiko komunikabideen bidez eman beharko da, betiere ordezkaturako akziodunaren nortasuna behar bezala bermatuz, bereziki, batzar bakoitzerako, Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako moduan eta irismenarekin.

Kapital Sozietateei buruzko Legearen 184. eta 186. artikuluetan ordezkatzeko aurreikusten dituen murrizketak ez dira aplikatuko ordezkariak dokumentu publiko batean jasota baldin bada ordezkatuak lurralde nazionalen duen ondare guztia administratzeko ematen zaion ahalmen orokorra.

Ordezkaritza edonoiz ezeztatu ahal izango da. Ordezkaturia Batzar Orokorrera joaten bada, ordezkaritza ezeztaturik dela esan nahiko du.

16. artikulua.- Informazio-eskubidea

Akziodunek informaziorako eskubidea izango dute, Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako baldintzetan. Administrazio Kontseiluak nahitaez eman beharko du, Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako moduan eta epeen barruan, akziodunek eskatzen duten informazioa, bertan aurreikusitakoari jarraituz, lege bidegabek den kasuetan eta, bereziki, presidentearen iritziz informazio horren publizitateak interes sozialei kalte egiten dienean izan ezik. Salbuespen hori ez da kontuan izango eskaera kapital sozialaren laurdena (1/4), gutxienez, ordezkatzeko duten akziodunek babesten dutenean.

17. artikulua.- Batzar Orokorreko mahaia

Batzar Orokorraren Mahaia Administrazio Kontseiluko presidenteak eta idazkariak –edo idazkariordeak, halakorik balego– osatuko dute, eta, halakorik ezean, bileraren hasieran parte hartzen duten akziodunek izendatutako bi (2) akziodunek. Presidenteak zuzenduko du Batzar Orokorraren bilkuren eztabaida, eta, horretarako, hitza emango du eta hitzaldien denbora eta amaiera zehaztuko ditu.

18. artikulua.- Erabakiak hartzeko gehiengoak

Batzar Orokorrak bileran dauden edo ordezkaturia dauden akziodunen botoen gehiengo osoz hartuko ditu bere eskumenen barruan dauden gaiei buruzko erabakiak, legean aurreikusitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, beste boto-gehiengo bat beharko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Batzar Orokorrak jarraian aipatzen diren gaiei buruzko edozein erabaki balio osoz hartzeko, boto-eskubidea duen Sozietatearen kapital sozial osoaren ehuneko berrogeita hamaikaren (51) aldeko botoa beharko da, gutxienez:

- (a) Kapital soziala handitzea edo murriztea, eta Estatutuen beste edozein aldaketa.
- (b) Kapital Sozietateei buruzko Legearen 304. artikuluan eta hurrengoetan edo horiek ordeztzen dituen arauan aurreikusitako lehentasunezko harpidetza-eskubidea baztertea.
- (c) Sozietatearen egiturazko edozein aldaketa, Sozietatearen aktibo eta pasiboen bat-egitea, zatiketa, eraldaketa eta lagapen globala barne, bai eta Sozietatearen egoitza atzerrira aldatzea ere.
- (d) Sozietatea desagitea eta likidatzea, lege aurreikusitako kasuetan izan ezik.

- (e) Akzioak saltzeko edo harpidetzeko eskaintza publikoa egitea eta eskaintza horren baldintzak zehaztea.

II. ATALA.- ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

19. artikulua.- Administrazio Kontseilua

Sozietatea Administrazio Kontseilu batek zuzendu eta administratuko du, eta Administrazio Kontseilu horrek izango du Sozietatearen administrazioari dagozkion gai guztien gaineko eskumena, eta horren ordezkaritza-boterea izango du, legean eta Estatutu hauetan ezarritakoarekin bat.

20. artikulua.- Kontseiluaren osaera

Administrazio Kontseilua gutxienez hiru (3) kidek eta gehienez hamar (10) kidek osatuko dute. Akziodunen Batzar Orokorrari dagokio kontseilari kopuru zehatza finkatzea.

Kontseilari izendatua izateko ez da beharrezkoa akziodun izatea. Kontseilariak ohoragarritasun komertzial eta profesional aitortuaren baldintzak bete beharko dituzte, eta, horietako hiruk, gutxienez, beren eginkizunak betetzeko ezagutza eta esperientzia egokiak izan beharko dituzte, Kredituko Finantza Establezimenduen Araubide Juridikoari buruzko apirilaren 26ko 692/1996 Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

Pertsona juridiko bat izendatzen bada kontseilari, pertsona fisiko bat izendatuko du horrek bere ordezkari izateko karguari dagozkion eginkizunak betetzeko.

21. artikulua.- Iraupena

Kontseilariak sei (6) urtez beteko dute beren kargua, eta behin edo gehiagotan berrautatu ahal izango dira iraupen bereko aldietarako.

22. artikulua.- Ordainsaria

Kontseilari kargua doakoa izango da.

23. artikulua.- Karguak izendatzea

Administrazio Kontseiluak presidente bat izendatuko du bere kideen artean. Presidenteak izaera betearazlea izango du, eta Administrazio Kontseiluak dagozkion ahalmenak eskuordetuko dizkio.

Presidenteak kalitatezko botoa izango du bozketetan berdinketak ebazteko. Kalitate-boto hori ezin izango da erabili 25. artikuluaaren bigarren lerrokadan zerrendatutako gaiei buruzko bozketei buruz denean.

Administrazio Kontseiluak idazkari bat –eta, egoki baderitzo, idazkariorde bat– izendatuko du, baina ez du zertan kontseilari izan behar; kasu horretan, bilkuretan hitza izango du, baina botorik ez.

24. artikulua.- Kontseiluaren bilerak.

Administrazio Kontseilua bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar den maiztasunarekin bilduko da, eta, gutxienez, hiru hilean behin.

Presidenteak egingo ditu bileretarako deialdiak, bere ekimenez edo bi (2) kontseilarik eskatzen duten guztietan. Kasu horretan, presidenteak Administrazio Kontseilua deituko du eskaera egin eta hurrengo hamabost (15) egun naturalen barruan, hurrengo paragrafoan aurreikusitako

epean egiteko. Presidenteak ez badu Administrazio Kontseilurako deialdirik egiten adierazitako epean, deialdia eskatu duten bi kontseilariak ahalmena izango dute dagokion bilerarako deia egiteko, betiere presidenteari errekerimendua egin diotela eta horrek deialdirik egin gabe hamabost (15) egun natural igaro direla egiaztatzen badute.

Administrazio Kontseiluaren deialdia idatziz egingo zaie kontseilariari. Idazki horretan, deialdia zein egunetan, ordutan eta tokitan egingo den eta gai-zerrenda osoa jasoko dira. Era berean, bileran aztertu beharreko gaiak eztabaidatu eta bozkatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztiaren kopia erantsi beharko da. Deialdia kontseilari bakoitzaren izendapen-aktan agertzen den helbidera bidali beharko da posta ziurtatu, burofax, notario-bide edo posta elektronikoa bidez, kontseilari bakoitzak horretarako emandako helbidera. Azken kasu horretan, kontseilari bakoitzaren posta elektronikoa jaso izanaren agiria izan beharko da, bilera egiteko aurreikusitako eguna baino zazpi (7) egun natural lehenago, gutxienez, premiazko arrazoiak daudenean izan ezik; kasu horretan, nahikoa izango da Administrazio Kontseilua hogeita lau (24) ordu lehenago deitzearekin.

Administrazio Kontseiluaren bilera hainbat aretotan egin ahal izango dira aldi berean, eta, beraz, kideak bertaratu gabe, betiere ikus-entzunezko edo telefono bidezko bitartekoez elkarreragina edo interkomunikazioa denbora errealean eta, beraz, egintza-unitatean, ziurtatzen bada.

Administrazio Kontseilua behar bezala eratuta geratuko da administrazio-organoa osatzen duten kontseilari gehienak bertaratuta edo ordezkaturik direnean.

Kontseilariak beste kontseilari baten esku utz dezakete beren ordezkaritza, eta kontseilari bakoitzak hainbat ordezkaritza izan ditzake. Ordezkaritza idatziz eta berariaz eman beharko da Administrazio Kontseiluaren bilera bakoitzerako.

Nolanahi ere, Administrazio Kontseilua baliozkotasunez eratuta geratuko da kontseilari guztiak bertaratzen direnean edo ordezkaturik daudenean (ikus-entzunezko edo telefono bidezko bitartekoen bidez denean barne), eta kontseilari horiek aho batez erabakitzen dutenean Administrazio Kontseiluaren bilera eratzea.

25. artikulua.- Erabakiak hartzeko gehiengoak

Administrazio Kontseiluak bilkuran dauden kontseilarien -bertaratuak zein ordezkaturik- gehiengo osoz hartuko ditu erabakiak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Administrazio Kontseiluak jarraian zerrendatutako edozein gai buruzko erabakiak hartzeko, Administrazio Kontseilua osatzen duten kontseilarien bi herenek (2/3) aldeko botoa eman beharko dute:

- (a) Aktibo finkoen inbertsioak, eskurapenak eta besterentzeak urtebeteko epean, onartutako azken balantzearen arabera (i) hamar (10) milioi eurotik gorakoak eta (ii) Sozietatearen aktibo finko guztien ehuneko hogeitik (20) gorakoak direnean.
- (b) Terminalak, ordenagailu pertsonalak, telefonoguneak edo telekomunikazio-zerbitzuak emateko edozein ekipamendu erosteko emandako finantzaketa-eragiketetatik ez datorren kreditu-eskubideen zorroaren edozein erosketa.
- (c) Terminalak, ordenagailu pertsonalak, telefonoguneak edo telekomunikazio-zerbitzuak emateko edozein ekipamendu erosteko emandako finantzaketa-eragiketetatik eratorritako kreditu-eskubideen zorroak erostea, baldin eta, onartutako azken

balantzearen arabera, zorro horiek Sozietatearen aktibo guztien ehuneko hogeita hamar (30) edo gehiago badira urtebeteko epean.

- (d) Sozietatearen kreditu-eskubideen zorroak besterentzea, baldin eta, onartutako azken balantzearen arabera, Sozietatearen titulartasuneko kreditu-eskubide guztien ehuneko hogei (20) edo gehiago ordezkatzeko badituzte urtebeteko epean.
- (e) Zerbitzuak emateko merkataritza-kontratuak egitea, suntsiaraztea eta/edo aldatzea, baldin eta Sozietateak errentariaren kontratu-posizioa bere gain hartzen badu eta ordaindu beharreko kontraprestazioa urtean hamar (10) milioi eurotik gorakoa bada.
- (f) Sozietatea bera ez den beste hirugarren batzuei Sozietatearen bezeroen datu-baseei buruz ustiapen- edo erabilera-eskubideak (edo antzekoak) emateko edozein akordio izenpetzea edo aldatzea (prestakuntza-egintzak barne, esaterako publizitatea, etab.).
- (g) Sozietatearen eta akziodunen edo horiekin lotutako pertsonen arteko transakzioak, urtean (i) berrehun mila (200.000) eurotik gorakoak eta (ii) Sozietatearen onartutako azken urteko kontuetatik ateratzen den emaitzaren ehuneko bostetik (5) gorakoak direnean.

Ondorio horietarako, ulertuko da akziodunei lotutako pertsonak direla honako hauek:

- (i) Akziodunari dagokionez Merkataritza Kodearen 42. artikulua leheneko paragrafoan jasotako egoeraren batean dauden bazkideak.
 - (ii) Administrazioaileak -zuzenbidezkoak edo egitatezkoak-, likidazioaileak eta akziodunen ahalorde orokorrak dituzten ahalduak.
 - (iii) Akziodunen Taldea bera osatzen duten sozietateak.
- (h) Hirugarrenen aldeko bermeak.
 - (i) Sozietateak jabetza industrial edo intelektualeko eskubideen xedapen-egintzak edo lizentzia onartzea, eta, bereziki, Sozietateak erabili beharreko markari buruzko edozein erabaki.

IV. TITULUA.- BALANTZEAK

26. artikulua.- Sozietatearen ekitaldia.

Sozietatearen ekitaldiak urtebete (1) iraungo du, eta urte bakoitzeko urtarilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da. Salbuespen gisa, lehen ekitaldiak iraupen laburragoa izango du, eta eratze-eskritura egilesten den egunetik urte bereko abenduaren 31ra arteko denbora hartuko du.

27. artikulua.- Kontabilitate-dokumentazioa

1. Sozietateak kontabilitate ordenatua izan beharko du, bere jarduerarako egokia, eragiketen jarraipen kronologikoa egiteko eta inbentarioak eta balantzeak egiteko modukoa.
2. Kontabilitate-liburuak Sozietatearen egoitzari dagokion Merkataritza Erregistroak legeztatuko ditu.

28. artikulua.- Urteko kontuak

1. Administrazio Kontseiluak hiru (3) hilabeteko epea izango du, gehienez, Sozietatearen ekitaldia ixten denetik zenbatzen hasita, urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena egiteko.
2. Urteko kontuek indarrean dagoen legerian aurreikusitako dokumentu guztiak jasoko dituzte. Dokumentu horiek unitate bat osatzen dute eta argi eta garbi idatzita egon beharko dira. Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakutsi beharko dute, legezko xedapenekin bat etorriz, eta Sozietatearen administratzaileek sinatu beharko dituzte.
3. Batzarraren deialditik aurrera, akziodun orok berehala eta doan eskuratu ahal izango ditu Sozietatetik Batzarrak onartu beharreko agiriak eta Kontuen Auditoreen txostena.

29. artikulua.- Urteko kontuak onartzea

1. Urteko kontuak Akziodunen Batzar Orokorrak onartu beharko ditu.
2. Urteko kontuak onartu ondoren, Batzar Orokorrak erabakiko du ekitaldiko emaitza nola aplikatu.
3. Dibidenduak ekitaldiko mozkinaren kontura edo erabilera askeko erreserben kontura banatu ahal izango dira, baldin eta legeak eta Estatutuek aurreikusitako betebeharrak bete badira eta kontabilitateko ondare garbiaren balioa edo banaketaren ondoriozko balioa ez bada kapital soziala baino txikiagoa. Sozietatearen ondare garbiaren balio hori kapital sozialaren zifraren azpitik diren galerak badaude aurreko ekitaldietan, mozkinak galerak konpentsatzeko erabiliko da.
4. Batzar Orokorrak dibidenduak banatzea erabakitzen badu, ordaintzeko unea eta modua zehaztuko ditu. Alderdi horiek zehaztea Administrazio Kontseiluari eskuordetu ahal izango zaio, bai eta akordioa eraginkorra izan dadin beharrezkoa edo komenigarria izan daitekeen beste edozein alderdi ere.
5. Administrazio Kontseiluak dibidenduen konturako kopuruak banatzea erabaki ahal izango du, legean ezarritako mugekin eta baldintzak betez.

30. artikulua.- Urteko kontuak gordailutzea

Urteko kontuak onartu eta hurrengo hilabetearen barruan, Merkataritza Erregistroan aurkeztuko dira legeak eskatzen duen gainerako dokumentazioarekin eta emaitza onartu eta aplikatu dela egiaztatzen duen ziurtagiriarekin batera, bertan gordailututa geratzeko, hori guztia legeak zehazten duen moduan.

V. TITULUA.- SOZietatea DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

31. artikulua.- Desegiteko arrazoiak

Sozietatea arrazoi hauengatik desegingo da:

1. Akziodunen Batzar Orokorrak horretarako berariaz deitutako eta Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera hartutako erabakiaren bidez; eta
2. legez aurreikusitako gainerako edozein kasuetan.

32. artikulua.- Likidazioa

1. Sozietatea desagitea erabakitzen duen Batzar Orokorrak berak zehaztuko ditu likidazioaren oinarriak. Likidazioa Batzar Orokorrak horretarako izendatutako likidatzaileek egingo dute.
2. Sozietatea likidazioan dagoela deklaritzen den unetik aurrera, Administrazio Kontseiluak utzi egingo dio kontratu berriak egiteko eta betebeharrak hartzeko ordezkariari, eta likidatzaileek beren gain hartuko dituzte legean aurreikusitako eginkizunak.
3. Likidazioa egiteko, Sozietatearen ondasunak zatitzeko eta Erregistrotik ezeztatzeke, legean eta aplikatu beharreko garapen-araudian xedatutakoa beteko da.
